


98. zk.
2001eko otsaila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



Arabako Euskal Hotsak

ERAKUSKETA

Montehermoso Kulturunean
Otsailak 16-Martxoak 25



**"Kixote argitaratu zenean arabar gehienek
Ramaiana* bezala ulertuko zuten"**

(Odon de Apraiz, 1950)

***epopeia indiarra**




"Hizkuntzaren bizitza errepika da.

Hizkuntza (eta kultura)

baten bihotza errepika da"

Abdelfattah Kilito



ARABAKO EUSKAL HOTSAK
Montehermoso Kulturunea · Otsailak 16 - Martxoak 25

Erakusketaren prestakuntza dela eta,
ale hau apurtxo bat beranduago
kaleratu behar izan da.
Barka itzazue eragozpenak

4-6.

zizka-mizkak

9.

nik uste!

11.

Denetarik. geurekin mendira

12-15.

TMEO



17.

MATRIKULAZIOA, EUSKARAZ

18.

KOZKORTUZ

21-23.

**IBON SAENZ DE OLAZAGOITIA.
ARTEA**

25.

**Euskaltasunean Lagun: Xabier
Lopez de Santiago**

hilabete honetan

26.

Denetarik II.



27-29.

KORRIKA KULTURALA

30-31.


**LOREA KATARAIN. Pilotazale,
pilotari**

33.

Azken ordua. Agenda

34.

Txeroki



termometroa

Azul zinemak, iazko ekainaz geroztik zine independentea, jatorrizko bertsiozko filmak, botatzen zituen Gasteizko zine areto bakarrak bere ateak itxi behar izan ditu ikusle faltagatik...

Halako ekimenek, aberaste kulturala dakarten heinean, instituzioen nolabaiteko laguntza eta bultzada behar lukete izan...



AGUR AZUL eta LASTER ARTE AHALKO BALITZ!!!

KAFE ANTZOKIAREN ASTEKARIA



Bilboko Kafe Antzokiak sortu berri duen berripapera astean behin posta elektronikoaren bitartez jaso ahal izango dute harpide egiten diren guztiek. Bertan kontzertu, ekitaldi eta azken uneko aldaketen berri emango da. Harpidetza doan izango da.

<http://es.groups.com/invite/kafeantzokia>

**Kafe Antzokia - San Vicente 2
48001 Bilbo - Euskal Herria**

zenbakia

98

...

GUTXI FALTA DA!



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a • Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es



Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak -bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. Maketa: DOAL. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez, Iñigo Kastresana eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92 • ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



WWW.TOPAGUNEA.COM / GEU ALDIZKARIA INTERNETEN



izenak

EGIN KIROLA EUSKARAZ. PRESTAKUNTZAKO GAIAK (Debarroko Euskara eta Kirol zerbitzuak)

- Tenisaren historia
- Oinarriko arautegia
- Minitenisa
- Oinarriko hiztegia
- Progresio didaktikoak
- Bibliografia

Egilea: Jose Antonio Utrera
Urtea: 1998ko

FITXAK

TENISA



• Kirol alorrean euskaraz dauden **prestakuntzako gaiak**.

• Kirol monitore, irakasle, entrenatzaile, kirolarientzat... baliagarriak.

• **Fitxak, liburuak, hiztegiak, ikastaroetako testuak, bideoak...**

• **Salneurria:**
Fitxa didaktikoak (1.000 pta. bakoitzak/Bilduma osoa: %20ko deskontua)
-Liburuak: 1.000 pta. bakoitzak)-Bideoa: 1.500 pta.

EGIN KIROLA EUSKARAZ



PRESTAKUNTZAKO GAIAK

- Indiakaren historia laburra
- Ario teknikoak
- Beroketa eredu bat
- Progresio didaktikoa

- Historia laburra
- Ario teknikoak
- Elementu teknikoak
- Beroketa eredu bat
- Progresio didaktikoa

- Historia laburra
- Ario teknikoak
- Elementu teknikoak
- Beroketa eredu bat
- Progresio didaktikoa



FITXAK

Egilea: Jose Antonio Utrera
Urtea: 1998ko

HERRI KIROLAK

- Herri-kirolen historia
- Orientabide orokorrak
- Beroketa eta lasaltze arloak
- Soka-tira
- Harrijasotzea
- Segua
- Txinga-erutea
- Lekutsu-bilketak
- Hiztegia
- Bibliografia

Egileak: Jose Antonio Utrera
Urtea: 1998ko



BERRIA

FITXAK

KIROL ENTREMAMENDUAREN OINARRIAK, FUTBOL ENTRENATZAILEA, BEROKETA-ESKUBALOIA-RUGBIA-SASKIBALOIA, KIROL ALTERNATIBOAK (Malabar jolasak, Frisbee-a, Patinajea...), HERRI KIROLAK, ATLETISMOA...

Informazioa:

**Debarroko bulegoa (943 795587)
Anoetako Kirol Etxea (943 458357)**

naturaren isladak



Baso-igel gorria (*Rana temporaria*). Barazar 2001-1-1.

Harritzekoa!! Odol hotzeko izakiak eta negu gorrian araldian. Hori bai dela bai berotzeko modua!

Iñaki Zorrakin

araki

otsailari

16tik aurrera

Arabako Euskal Hotsak

ERAKUSKETA

Montehermoso Kulturunea

22a KONTZERTUA

Mikel Urdangarin.

Principal Antzokian.

20:30etan

martxoari

apirilari



MIKO
izozkiak

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia
**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**
Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LIBURUDENDA
axular
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

**MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan
Arriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• Fotokopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
**behar duzun
guztia**
PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Multiofertas

**BONARDI
ARMAZOAIA**
4.150 (24,94 €)
PTA.N

LENTE*
PROGRESIBOAK
19.500 (117,20 €)
PTA.TIK
AURRERA

**ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a**

MENDIAOPTIKA
1856 AZ GERO

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ
Larunbat arratsalde zabalik
Andre Maria Plazan: 5 - 8.30
www.multiopticas.com

01/02/2018 arteko eskaintza * ± 4 ESF ± 2 ZIL ko lente zuzentzeko eskaintza

DANTZARIK DANTZA

Oraingo honetan, kalera irten beharrean, dantza talde baten saiora joan gara. Dantzari hauek ostiralero biltzen dira euskal dantza ezberdinak ikasteko asmoz. Saioa bukatu ondoren, beraingana jo dugu gai honi buruzko zenbait galderarekin. Ea zer esan diguten.

- 1) Zergatik hasi zinen euskal dantzak ikasten?
- 2) Zenbat denbora daramazu dantza taldean?



Samuel. Ikaslea

- 1) Ezagun batzuek animatuta hasi nintzen, dantza hauek oso politak direlako.
- 2) Irailetik.

Estitxu. Langilea

- 1) Txikitatik dantza egin dut, nire etxean ere zaletasun hau baitzegoen.
- 2) Talde honetan hiru urte daramatzat.



Waleska. Langilea

- 1) Betidanik nahi izan dut dantzan jakitea, baina orain arte denboraz estu ibili naiz.
- 2) Hiru urte daramatzat.

Unai. Langilea

- 1) Dantzariak ikustea gustatzen zitzaidan eta lagun batek hona etortzera animatu ninduen.
- 2) Bi urte.



Ainhoa. Langilea

- 1) Txikia nintzenetik dantzak ikasteko gogo handia nuelako.
- 2) Hiru urte.

Oier Herrero. Ikaslea

- 1) Nire neskak lagunarekin batera hasi nintzen, dantzatzea oso gustuko dugulako.
- 2) Hilabete batzuk bakarrik daramatzat.



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kotxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



HEMEN DUZU ESPERO ZENUENAI
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

vitrales



BEIRATE
ESTUDIOA

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZA HAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Elkarlanean argitaletxeak aurkezten du...

DURANGO DURANGO



ELKARLANEAN

Juan Kruz Igerabide

Mikel Valverde

KUKU SAILA

Haur literatura

(8-10 urtekoentzat oso egokia)



Bada Bizkaiko probintzia leial eta bizkorrean

Durango izeneko hiri bat. Garai batean, durangar bizkor batek oilategia jarri zuen hiriaren erdian, gerora parkea izango zen lekubatean. Durangar hori oilo-hezitzailea zen, eta gauza harrigarriak eginarazten zizkien oiloei...

OTSAILEKO LEHIAKETA:

*IZENBURUKO

BI DURANGOTATIK BAT BIZKAIA DAGO, BESTEA NON OTE DAGO?

Erantzuna asmatzen duen harpidedunak Elkarlanean argitaletxearen 2 libururen zozketan parte hartuko du! Animo!

Bidalguzue erantzuna postaz (Geu aldizkaria, Pedro Asua 2-3.a-01008-GASTEIZ) edo e-mailez (geugaste@grn.es).

Urtarrileko LEHIAKETA

- GALDERA: JON ARRETxEK IDATZI AZKEN LIBURUAZ GAIN, "ZAZPI KOLORE", BERE BESTE LIBURU BATEN IZENBURURIK EZAGUTU BAI?

- IRABAZLEA: JOSUNE ZULUETA URTARRAN. EMANDAKO IZENBURUAK: "Ostegunak", "Ostiralak".

Jon Arretxeren beste liburu batzuk:

"Tubabu", "Tuparen seme-alabak", "Hakuma Matata", "Harresi Handirantz", "Urrezko Triangelua".

ADI HARPIDEDUN, ADI BAZKIDE!!!

MIKEL URDANGARINEN CD SINGLE BAT NAHI AL DUZU? EGIN, BA, ZURE LAGUN BAT, SENIDE BAT, LANKIDE BAT GEU ALDIZKARIAREN HARPIDEDUN ETA CD-A ZURETZAT... (EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA HELBIDEA ERE FITXAREN ATZEALDEAN JARTZEA!!!).



Gaztelupeko
Hotsak-en eskutik

Gasteiz, 2001eko otsailaren 7an

Agur lagunak!

Badakizue, seguruenez, Geu Gasteiz taldeak baduela mendi talde bat. Geurekin mendira izenburupean ikusi bide dituzue noizbait bere ateraldietarako egiten dituen deialdiak. Euskaldunen arteko harremana trinkotzearen sortu genuen talde hau eta euskararen erabilera bultzatzeko, eremu erdaldunetan inon baino gehiago beharrezkoak ditugulako horretarako esparru propioak. Hortaz, bi baldintza besterik ez dira behar gurean parte hartzeko: euskaraz jarduteko jarrera eta mendian ibiltzea gustukoa izan.

Tamalez, bitarteko urriak ditugu jendearengana iristeko. Horregatik idatzi dugu gutun hau, honen bidez, gonbidatu nahi zaituztegunako "geu"rekin bat egitera, zuek eta inguruan dituzuen euskaldun zahar, berri, berritu, zaharkitu, higatu ... era guztietako euskaldun paseatzeko zale, ibiltzeko zale, natura zale eta ...mendizaleak, bistan da.

Hilabetearen behin egiten ditugu txangoak, igandetan. Goizeko zortzi eta erdietan abiatzen gara Txapela tabernaren aurretik, Prado kalean. Geure autoetan joan ohi gara, baina ez daukanak beti badu beste batenean toki. Noizbait autobusez joan gara. Goizekoa izan daiteke ibilaldia, edo egun osokoa. Pozik joaten gara, bizkortuta itzultzen, umore ona sortzen da gure artean.

Hona, udako oporren aurretik gelditzen diren ateraldiak:

- Mantxibio eta Soila, otsailaren 18an (goizekoa)
- Leungane eta Urtemondo, martxoaren 11an (egun osokoa)
- San Tirso, apirilaren 8an (goizekoa)
- Aloña, maiatzaren 20an (goizekoa)
- Arbarain, ekainaren 17an (goizekoa)

Mesedez, ahal duzuen neurrian eta moduan, informazio hau zabal ezazue, ingurukoak parte hartzera bultzatu itzazue. Informazio gehiago nahi baduzue deitu Geura. Milesker, dena den, zuen arretagatik eta euskalgintzan lagun, agur bero-bero bat.

Geu Gasteiz mendi taldeko arduradunak

Geu GASTEIZ EUSKALDUNA

Pedro Asua, 2-3.a - 01008 Gasteiz - Tel.-Faxa 945222153

GEUREKIN MENDIRA. OTSAILEKO IRTEERA

MANTXIBIO-SOILA

Noiz: Otsailak 18

Irteera: Goizeko 8.30etan

**Txapela tabernatik (Prado kalea)
goizeko irteera da**





0. zenbakia



UMOREA GARAI ZAILETAN

HAMALAU URTE PASA DIRA HAINBAT KOMIKIGILE IRUÑEAN ELKARTU ETA TMEO ALDIZKARIA SORTU ZUTENETIK. ORUE, SIMONIDES, MIKEL VALVERDE, MAURO... TMEON ASKI EZAGUNAK EGIN DIREN KOMIKIGILEAK DIRA, ETA BESTE ASKOREKIN BATERA, 1987KO SAN FERMINETAN JAIO TAKO ALDIZKARIA-REN FILOSOFIA MANTETZEN JARRAITZEN DUTE, ALEGIA, UMOREZKO ISTORIOAK KONTATZEN.

Gasteizen Telescopon, Iruñean El Amelin eta El Txino, eta Bilbon Apurtu. Horiexek ziren duela hamalau urte Euskal Herriko hiriburuetan bakoitzak bere aldetik funtzionatzen zuten komiki fanzinak. Guztiek elkar ezagutzen zuten, kalitate eta eduki hobea zuen aldizkari bat sortzea pentsatu zuten, eta hala egin zuten. 1987ko San Ferminetan jaio zen umore eta ironiaz betetako TMEO komiki-aldizkaria. Orue komikigileak esaten digunez, “gure helburua zen indarrak batzea eta marrazkigileentzat plataforma bat eratzea”. Orduz geroztik hamalau urte pasa dira, baina garai hartako filosofia mantentzen dela uste dute TMEOko kideek.

Dozena bat kolaboratzailek baino gehiagok margotzen du TMEOn, bakoitzak oso estilo pertsonala eta berezia duela. Istorioek ez dute zerikusirik bata bestearekin, izan ere, komikigile bakoitzak nahi duena margotzen du. Hori bai, bada ezaugarri komun bat guztien artean: umorea. Umore satirikoa. “Ez da bete beharreko baldintza bat; bizi dugun garaiak bultzatuta sortu den ezaugarri bat baino ez da”, dio Simonidesek. Aldizkari satirikoa, baina izaera soziala duena, umorezkoa, baina hausnarketa egiten duena... Horixe dugu TMEO.

Ilusioa bai, baina etekin eskasak

Urte hauetako balantzea egin aurretik, aldizkariaren izenaren zergatiak galdetzea ezinbestekoa zen eta espero genuen erantzuna jaso genuen: “Aldizkaria sortzeaz zegoenean zein izen jarri behar genion pentsatzen hasi ginen. Behin poteatzen ari ginela, niri TMEO otu zitzaidan, betiko TBO txiste-aldizkariaren izenarekin hitz-joko bat eginenez”, diosku Simonidesek. Arrakasta itzela izan zuen lagunen artean eta halaxe geratu zen betiko.

Beno, betiko, betiko... irauten duen arte, bederen, bai. Izan ere,

negozio moduan ez da batere errentagarria horrelako aldizkari bat sortzea. Kontuan hartu behar da TMEOko kolaboratzaileek musutruk lan egiten dutela eta etekinak ateratzea oso zaila dela. Illdo horretan, garai txarrak igaro dituztela aitortzen digu Kinik: “Bospasei urtetik hona TMEOren aldizkotasuna mantentzen dugu (bihilabetekaria da), baina hainbat urtetan ahal genuenean ateratzen genuen, lau hilabetea eta abar...”. Argi dago, beraz, ez dela merkatu erraza komikiarena. Eta ez dirudi, gainera, egoera hoberantz joko duenik. Izan ere, TMEOko kideen aburuz, ia ezinezkoa da beste aldizkari berririk ateratzea merkatura, fanzinak ez badira behintzat.

Arazo legalik ez

Aldizkariaren finantziabideak publizitatea eta salmentak dira (5000 ale inguru ateratzen dituzte). Irakurle finkoak izateaz gainera, badira beste batzuk aldiro erosten dutenak, batik bat TMEOk hilabete horretan duen azalak erakarrita. Horregatik azal erakargarri eta inpaktanteak egiten saiatzen dira beti, hori baita irakurle gehiago lortzeko biderik zuzenena.

Espainiako Erret familia edota Garzon epailearen kontrako marrazkiak maiz atera dituzten

**14 urte
pasa dira,
baina
garai
hartako
filosofia
mantentzen
dela uste
dute**

**“Gure
kontra
zerbait egin
baino lehen
ondo
pentsatzen
dutela
uste dut”**

(Orue)





arren, "oraindik" ez dute inolako arazo legalik izan. "Gure kontra zerbait egin baino lehen ondo pentsatzen dutela uste dut eta euren buruari galdetzen diotela: zertarako egingo ditugu ospetsuago tipo hauek?", dio Oruek. Hala ere, egurra ikutzen du badaezpada ere...

Eta autozentsura? Noizbait komiki-
ren bat ez argitaratzea erabaki al dute
TMEOkoek? Ziur asko, bat baino gehia-
goren zalantza eta galdera izango dela
hori. Bada, ez. Ez dute sekula zerbait
zentsuratu, hori bai, aldizkaria argitara-
tu aurretik marrazkiak begiratu eta
baten batekin zalantza izatekotan boz-
katu egiten dute. Demokratikoa oso.

Horixe da TMEOren atzean dagoen
mundua. Inguruko miseriak eta ezbe-
harrak salatzeak umore satirikoa erabil-
tzen duen marrazkigile aparten mun-
dua. Hamalau urte daramatzate barrea
eragiten, hurrengo hamalautan gauza
bera egiten jarrai dezaten espero dugu.



KINI, TMEOko koordinatzailea:

"Inguruko ezbeharrak umorez kontatu eta salatzea oso zaila da"

- ZEIN DA ZURE LANA TMEON?


Nire lana batik bat da komikiak
entregatzeko data gogoraraztea
kolaboratzaileei, kontuak eta
fakturak egitea, alegia bulego-
ko kontuak eramatea.

- ZAILA AL DA HORRENBESTE KOLA- BORATZAILE KOORDINATZEA?

Egia esan ez da zaila, baina ba-
tzuetan neketsua da denbora
guztian jendearen atzetik ibili
behar izatea lana entregatu
behar dutela behin eta berriz
esateko. Kabroi batzuk dira ba-
tzuetan (barre egiten du) eta
askotan eskakeatu egiten dira.

- BA AL DAGO EMAKUMEZKO MARRAZKIGILERIK TMEON?

Bai, bada neska bat azken hiru



zenbakietan kolaboratzen di-
harduena, baina hamalau urte
hauetan zehar beste batzuk ere
egon dira. Hala ere, emakume
asko ez badaude ez da guk
ateak ixten dizkiegulako,
mundu honetan asko ez daude-
lako baizik.

- ZURE ABURUZ, ZAILA AL DA UMO- REA EGITEA GAUR EGUN?

Bai, nahikoa zaila da. Inguruan
dagoena ikusten duzunean erra-
za da umorea egitea. Hori bai,
umorea egitea sinpletasunean
eta zakarkerian erori gabe, hori
zailagoa da. Hots, munduan
gertatzen diren ezbeharrak
umorez kontatzea eta era bere-
an salatzea, ez da batere samu-
rra.



Kolaboratzaileak



* SANTI ORUE, 36 urte. Gasteiz

Bere pertsonajea:

Paco Pinrel. Ciudadano de a pie

"Paco pertsona normal bat da, kartetan jolasten du, modu txarrak ditu... Baina peoi sinple bat dirudien arren hausnarkera onak egiten ditu. Gizartearekiko zorrotza eta mingotsa da, guztia kontra dago. Bere istorioak leku arruntetan igarotzen dira: tabernan, etxean..."



* SIMONIDES, 48 urte Murtxante (Nafarroako Erribera)

Gurekin euskaraz gustura aritu zen Simonidesek ez dauka pertsonaje finkorik TMEOn, bineta desberdinak egiten ditu. Aitzitik, marrazki guztiek komunez ezaugarri bat dute, umorea eta ironia erabiltzen dutela. Simonidesi gaitik erabat aldentzea gustatzen zaio istorioak kontatzeko unean. Politikak erabat aspertzen du.



* ABARROTS ANTOLAGIRRE. 29 urte. Hondarribi

Ez dauka pertsonaje zehatzik aldizkarian, momentuan otu egiten zaion pertsonajea egiten du. Bere estiloa pertsonala da, ordea. Umore kostunbrista egiten du, alegia, ohiko kontuak eramaten ditu paper gainera. Berak azaltzen digunez, bere marrazkiak "monigoteak" dira.



* MAURO ENTRIALGO. 35 urte. Gasteiz (Madrilen bizi da egun)

Bere pertsonajea: Herminio Bolaextra

TMEOn 0 zenbakitik dagoen pertsonajea da, ez du zenbaki batean ere huts egin. "Herminio kazetari endekatu bat da. Beti parrandan ibiltzen da eta gehiegikeriak egiten ditu. Pentsatzen duena esaten du beti, ez dauka inolako lotsarik", dio bere egileak.





GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

adi
otsailari
martxoari
apirilari

MERKURIO-KADMIOMAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net



etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digitok)		Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria, Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

el euskara, un derecho y una ventaja etorkizuna euskaraz dator matricula a tu hija/hijo en el modelo D



jordi



mohamed



aitor



vanesa



fatima



alicia



ramón



raquel



Euskaltzaleon Elkargunea

ya sabe castellano

si **MATRICULAS**
a tu hijo-a en **EUSKERA**
será **BILINGÜE** y
VITORIA-GASTEIZ también



GASTEIZEN EUSKARAZ
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi
eta **HORTARA GOAZ**



"HERRIA DA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA"

Euskara bultzatzeko ideiak, euskararen aldeko mezuak

•Ikastolaz ikastola, eskolaz eskola, ikastetxez ikastetxe... Hile honetan, **Bambi ikastola**. Bertako umeez beraien ustez euskararen egoera zein den eta euskara zabaltzeko, bultzatzeko, botatako ideiak jakinarazi edota euskararen aldeko mezuak esan dizkigute. Horra hor:

Euskara dakitenek
gaztelania bakarrik
dakitenei irakastea.
Gazteok ikastolako
atsedenaldietan euskaraz
gehiago
hitz egitea.

RUTH, 11 URTE

Kirol saioetan
euskaraz gehiago
hitz egitea.
Euskaraz gehiago
hitz egitera
bultzatzea.

KAULDI, 8 URTE

Euskara ez dakitenei
klaseak eman eta
barnetegiara joatea.
"Euskaldunok euskaraz
egin behar dugu, bestela
galduko da".

**PAULA,
11 URTE**

Erdarazko liburu batzuk
kendu eta euskarazko
gehiago argitaratzea.
Euskaraz gehiago hitz
egitea denon artean.

Etxekoekin euskaraz
hitz egitea.
Euskaraz ikastea ona
dela batzuetan
dibertigarria delako.

ANDER, 11 URTE

Liburu gehiago
euskaraz
argitaratzea.
Jendea euskaraz
hitz egitera
bultzatzea, gutxi
hitz egiten
baita.

XABI, 8 URTE

LORENA, 11 URTE



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

100adi

otsailari
martxoari
apirilari

eusko
alkartasuna

www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.gazteabertzaleak.com

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

BITORIANO (Zuia · Araba) TEL. 945 43 00 73

Zaldiaran Plaza, 10 · Tfoa.: 945 22 65 64

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER KIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74



adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Bere lehen erakusketa egin zuenetik hainbat aretotan erakutsi du Ibon Saenz de Olazagoitiak bere lan artistikoa; azkena, Zuloa dendan. Orain Bilbaoartean bekadun Bilbo eta Gasteiz artean bizi den gazte honek bere hurrengo egitasmoen prestakuntzan lanean dihardu. Egun gure inguruan aurki daitezkeen irudiei ukitu berezia ematen die, ordenagailuak eskaintzen duen ikuspegi bereziaz, alegia.

**“Gizarteak
estetikaren
erruz pairatzen
duen egoera ez
zait gustatzen”**

- **Jaioterria:**
Gasteiz
- **Jaiotze-data:**
1972ko
maiatzak 25
- **Ikasketak:**
Arte Ederrak,
grabatu eta
eskultura
espezialitateak
- **Lanbidea:**
Artista



Zirt edo zart

• **ARTISTA JAIO EDO EGIN?** Egiten da..., baina horretarako jaio egin behar da. Nire esperientziaren arabera artista egiten dela esan behar dut.

• **ARTISTAREN IZENERA ERANTZUTEN DUZU ZUK?**

Beno, ... bai, zer naiz bestela?... ez naiz beste edozer.

• **JENDEAK ARTISTAK BITXITZAT DITU, ZER IRIZTEN DIOZU HORRI?**

Normalean topikoak dira, denari buruz egiten dira topikoak eta prototipoak, ez nago ados horrekin. Jendeak artista plastikoen lana ez du baloratzen eta artea bera alferrikakotzat jotzen du, jendeak beste lehentasun batzuk baititu: politika, etxebizitzaren prezioa, kredituak, "agobioak"... Bakarrik ospetsuak direnei begiratzen diete eta askotan artista horiek fama-tuak dira diruaren edo baliabideen kontura oihartzuna lortu dutelako. Artez bustita egon behar duzu artea ulertzeko eta gustukoa izateko.

• **BATIK-BAT IRUDIAK ETA ITXURA LANTZEN DUZU ZURE LANEAN, ZERGATIRIK BADAGO?**



• **ARTISTA BATEN IZENA?** Ez zaizkit artistak gustatzen, jende arrunta gustatzen zait, eta "beitu" ni artista naizela edo behintzat jendeak horrela hartzen nau... Horregatik, ezingo nuke bat esan, nahiz eta asko egon; prototipoak ez direnak eta aldi berean oso inportanteak direnak ditut gustuko.

• **ERAKUSTARETO BAT?** Gasteizko Arte Ederretako museoa.

• **KOLOREA EDO ZURI-BELTZA?** Zuri-beltza.

• **FOBIA BAT?** Ezjakintasuna.

• **ZALETASUN BAT?** Gauzak egiteko gogoia.

• **AUTORRETRATUAK?** Bai, egiten ditut, oso ezberdinak gainera.

• **MUSIKA MOTA?** Kontenporaneo... Baina ez klasikoa ezta elektronikoa ere, ez dakit nola definitu...

• **LIBURUREN BAT?** "El varón rampante", Umberto Ecorena

• **GUGGENHEIM...** Negozioa. Honen politika ez da artista berriei bultzada ematea, baizik eta artea negozio bilakatzea. Ez dut gustuko.

Fakultatean hasi bezain pronto irudiaren mundua lantzea erabaki nuen, interesatzen baitzitzaidan, baita argazkilaritzarena ere. Irudia, itxura, estetika momentu orotan inguratzen gaituen zerbait da, gure gizartea ikusmenaren kulturen oinarritzen baita. Horregatik, orain dela 2 urte ordenagailua lan tresna gisa erabiltzen hasi nintzen; izan ere, irudia lantzeko orduan digitalizazioarekin dauzkadan aukerak areagotzen dira.

• **ORDENAGAILU BATEK AUKERA ANITZ EMATEN DITU, MENDE HONETAN TEKNOLOGIA BERRIEK INDARTSU EHINGO BAITUTE. ZER-NOLAKO ERAGINA IZANGO DU HORREK ZURE LANEAN?**

Irudiak "tranpeatu", "modifikatu" eta aldatzeko aukera oso iradokigarria iruditzen zait. Bestetik, ordenagailua bide ezberdinak jarraitzeko ahalbidea da: inprenta, diseinua, grabatua, serigrafia... Eta programekin bozetoak presta ditzaket geroago eskulturak egin ahal izateko. Beraz, argazkia eta eskultura bata bestean oinarritzen dira. Bestalde, batzuetan pentsatzen dut, ordenagailuarekin hainbeste lan egiteaz, eskuekin lan


egitea ahaztuko zaidala, hain da dena mekanikoa eta automatikoa...

• **ZEIN DA ZURE LANAREN ATZEAN EZKUTATZEN DEN FILOSOFIA?**

Nahiz eta nire lana irudian oinarritu, ez zait gustatzen gure gizarteak estetikarekin pairatzen duen egoera; baina ez dut nire burua eskultura klasikoa egiten ikusten eta ordenagailua eta itxura lan tresna baditut ere, mass-media nahiz merkatu handietan parte hartzen duten agente horiek inposatzen diguten bizitzaren ikuspegia ez zait batere gustatzen.


• **BAINA ARTEA ULERTZERIK BA AL DAGO?**

Askotan ez da ulertzen eta hori artisten errua da, "denak balio du" delakoak ez baitu beti funtzionatzen... Abangoardietan gertatzen zena hain zuzen ere; beraien lanak ezagutarazteko denbora eta



"Irudiak aldatzeko aukera oso iradokigarria iruditzen zait"

"Artez bustita egon beharra dago artea ulertzeko eta gustuko izateko"



kemena behar izan zuten. Van Gogh-ek berak ere hilda egon zen arte ez zuen lanik saldu... Honekin esan nahi dudana zera da, artea denborarekin batera ere garatzen dela, baita artearekiko ikuslearen kontzeptua eta hau paraleloki gertatzen ez bada arazoa sortzen da. "Denak balio du" horrek jendearen zalantza sortarazi du eta azkenean gustatzen zait edo ez zait gustatzen esatera mugatu ditu ikusleak.

• **ARTISTA BATEN GARAPENERAKO AUKERA GEHIAGO EMATEN DU BILBOK GASTEIZEK BAINO?**

...Bilbon erakustareto, artista eta diru gehiago dagoela esan beharra dago.

• **ORAIN BILBO ETA GASTEIZ ARTEAN BIZI ZARA, BESTE EDONORA JOANGO ZINATEKE BIZITZERA?**

Ez, Bartzelonan izan naiz eta orain berriro bertan ibili naiz erakusketa bat prestatzen; Madrilan ere izan naiz, baina ez dut uste han bizitzea gustatuko litzaidakeenik. Hiri handiek arazo gehiago dakarte.

GEU ALDIZKARIA, ZURE ALDIZKARIA. IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!



Hauek argazkiekin batera ondo joan daitezkeen datu batzuk besterik ez dira: Olabiden ikasi zuen, eta Geu-ren ezagutza badu aldizkaria sortu zenetik; bere arrebak etxean jasotzen du (Harpidetza orria eman diot, marketing teknika bikaina erabiliz..., je, je, je).



Aukera paregabea



aixkiria euskaltegia Jose Mardones, 8 • tf. 945 26 35 40

amaiur euskaltegia Peru, 8 • tf. 945 21 75 08

arana euskaltegia Arana, 30 • tf. 945 25 24 00

Izena emateko epea: Otsailak 9

dek

izena eman



BAMBI IKASTOLA

Erdiguneko

Adi 2001-2002 ikasturterako
aurrematrikulazioari!

'D'
eredua

ikastola
bakarra

OTSAILEAN

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5 • 01009 GASTEIZ - Tfnoa: 945 14 00 66

toki eder ikastola



2001-2002 IKASTURTERAKO
IZEN-EMATEA
OTSAILAREN 5ETIK 16RA

Wellingtongo Dukearen Kalea 6
01010 Lakua. Gasteiz
Tfnoa. 945 17 12 10

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUN ETA INTEGRALA

"ZUEN SEME-ALABEK HEZKUNTZA
ELEBIDUNA ETA INTEGRALA IZAN
DEZATEN, IKASLEEN ARLO GUZTIEN
GARAPENA (NORTASUNA, GORPUTZA,
ADIMENA, EMOZIOA ETA GIZA HARREMANAK)
EUSKARAZ ESKAINTZEN DIZUEGU"



**ARMENTIA
IKASTOLA**



HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, BAITA D.B.H. ERE!

- Bi urtetik aurrera, kalitateko hezkuntza, proiektu integral eta euskalduna
- Ikasle bakoitzaren jarraipen zuzena
- Eleaniztasuna.

Ingelesa 4 urtetik aurrera

- Jangela eta autobusa
- Familiarentzako eta ikastorduz kanpoko ekintzak



de
lenguas
extranjeras

Gaztelako atea-Portal de Castilla, 101 • 01007 GASTEIZ - Tel. 945 14 54 45

NIK ZER NAHI DUDAN BALDIN EZ BADAKIT...

- DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

- Txokolatea, jatekoa.

- ETA BERTUTEA?

- Nire bertute guztiak txikiak dira.

- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

- Gehiegi ez okertzea.

- ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

- Nik zer nahi dudan baldin ez badakit...

- JENIORIK BA AL DUZU?

- Oso gutxitan.

- ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE

ONETIK?

- "Abre-fácil" duten gauzak, ezin ditut inoiz ireki.

- GEU-REN BERRIRIK BA AL DAUKAZU?

- Bai, sortu zenetik etxean jasotzen dut aldizkaria.

- EGUNKARI BAT?

- Bat ere ez.

- PELIKULA ONEN BAT?

- Seven.

- TELEBISTAKO PROGRAMARIK?

- Caiga Quién Caiga.

- JAKI GOXOREN BAT?

- Bat bakarrik? Arkumea.

- ZURE GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?

- Ez dakit, zuk esan.

- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

- Edonon, leku berriak eza-gutzeko.

- TXIKITAKO OROITZAPENIK?

- Herrian anaiekin zuhaitze-tara igotzen nintzenean.

- IDAZLEREN BAT?

- Noah Gordon.

- DENBORA IZANEZ GERO, ZER EDO NORA EDO ZERTARAKO?

- Bidaitzeko.

- GASTEIZEK DUEN ONENA?

- Oinezkoentzako esparru asko dagoela.

- ETA TXARRENA?

- Dudarik gabe etxebizitzaren prezioa.

- EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

- Guztiz, ez.



XABIER LOPEZ DE SANTIAGO

XABIER LOPEZ DE SANTIAGO 1976AN JAIO ZEN GASTEIZEN ANAI BIKI BATEK LAGUNDUTA. ZIENTZIAK ETA ARTEAK, BIEK DUTE TOKIA XABIEN BIZITZAN. IZAN ERE, ZENBAKIAK ETA MUSIKARAKO ZALETASUNA TXIKITATIK DATORKIO; GERORA, ENPRESEN ADMINISTRARITZA ETA ZUZENDARITZA IKASKETAK ETA TRIKITIXAN GAUZATU DENA. GAUR EGUN, LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEA DUGU.

- ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ESATEA ZU HIL ETA GERO?

- Ezer ez, ea entzungo dudant!

- MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

- Elkarriketa honi erantzutea.

- GOGOKO MUSIKARIK?

- Folk musika.

- KOLORERIK GUSTUKOENA?

- Itsasoko urdina.



Txalapartaren eskutik... Azken nobedadeen iruzkinak



KORTAZAR bilduma

Bilduma berri honetan euskal jatorria duten eta munduan barrena sakabanaturik dauden egileak bilduko ditugu. Zenbait oso ezagunak dira. Beste hainbat, berriz, nahikoa ezezagunak ditugu gure artean baina ondare handia utzi diote literatura unibertsalari. Guztiek merezi dute jatorrizko korta zaharrera itzultzea, baina zerrenda amagabea da ia eta ezinbestean aukeraketa egin behar izan dugu. Argitaletxearen asmoa, bilduma honetan urtean bizpahiru liburu argitaratzea da, euskaraz eta gaztelaniaz. Josu Landaren Zarandona, Eduardo Galeanoren Hitz ibiltariak eta Isidora Agirreren Santiago de diciembre a diciembre dira lehengoak.

Hitz ibiltariak. Eduardo Galeano. Itzultzailea: Gerardo Markuleta

Hego Amerikako idazle on eta duinenetakoak, idatzi nahi dituen istorioak kontatzen ditu liburu honetan, bideetan jaso dituen ahotsak eta bere esna garaiko ametsak, ameskerian erabilitako errealitateak eta errealitate bihurtutako ameskeriak... noizbait aurkitu zituen hitz ibiltariak. Ipuinak, istorio bereziak eta hainbat konturi buruzko leihoak eransten ditu orrialdeotan, orrialdeak erantzi nahi dituenarentzat. Eduardo Galeano Montevideon jaio zen (Uruguai), 1940an. Hainbat urte deserrian eman ondoren, 1985ean sorterrira itzuli, eta han bizi da gaur egun. Hainbat liburu argitaratu ditu, eta hainbat hizkuntzatar itzuli dizkiote. Haien artean, Las venas abiertas de América Latina [Latinoamerikako zain irekiak] (1971); Días y noches de amor y de guerra [Amodio eta gerrako gau-egunak] (1978); Memoria del fuego [Suaren oroitz] trilogia (1982/1986); ingelesezko bertsioak American Book Award saria jaso

zuen; El libro de los abrazos (1989), eta honako artikulua bildumak: Nosotros decimos no [Guk ezetz diogu] (1989) eta Ser como ellos [Haiei modukoak izatea] (1992).

AMAIUR bilduma

Gutziak (2. edizioa). Egileak: euskarazko 29 emakume idazle. Hitzaurrea: Mari Jose Olaziregi

29 gutizia. 29 ipuin. 29 idazle. 29 izen. 29 ahots. 29 amets. 29 errealitate. 29 gonbidapen. Aurelia Arkotxa, Ainhoa Arozena, Aintzane Arrieta, Yolanda Arrieta, Begoña Bilbao, Itxaro Borda, Arrate Egaña, Idoia Etxeberria, Amaia Elozegi, Enkarni Genua, Aitzpea Goenaga, Maite Gonzalez Esnal, Lierni Ibargutxi, Arantxa Iturbe, Pili Kaltzada, Mariasun Landa, Goizalde Landabaso, Amaia Lasa, Miren Agur Meabe, Amaia Mendoza, Laura Mintegi, Esther Mugertza, Lourdes Oñederra, Jasone Osoro, Ixiar Rozas, Maribí Unamuno, Lourdes Unzueta, Edurne Urkiola eta Ana Urkiza. 29 gutizia.

"Esan beharrik ez dago emakumeok anitzak eta desberdinak direla elkarren artean. Anitzak eta desberdinak diren moduan, euren poetika, estiloa eta jarduera literarioak. Izan ere, emakume-tasunak, zernahi delarik ere, ez baitu zertan ezaugarri zehatzez hornitu behar euren artelana. Euskal literatura aurpegi, ukitu, unibertso, itxura... propioz janzten ari dira eta liburu honek langintza eta aniztasun horiek erakusteko bitartekoa ere izan nahi du.

Hona hemen gonbidapena euskaraz idazten duten emakumeon lanak irakurtzeko, irakurgai kuttunen zerrenda ohiko antologia edo katalogo-etan ikusiko ez dituzun izenekin zabaltzeko, eta 'literatura femeninoaren' inguruan dauden topikoekin apurtzeko. Modu horretan, zure literatur horizontea zabaltzeko".




IRRATIA SUKALDEAN-LA RADIO EN LA COCINA

Testuak: Jose Ramon Agiriano eta entzuleen kolaborazioak. Radio Vitoria

"Errezetategi honetan sutegietara hurbiltzeko orduan apaltasuna ageri da, nahasketa eta zaporeei heltzean jatortasuna eta, etxe batentzat are garrantzizkoena dena, jangaien zentzuzko erabilera eta erabateko aprobetxamendua. Agian ez da, lehen aldiz, sukalde mundura agertzen direnentzat berebiziko errezetategia izango, baina bai iturri agortezina ideiak kopiatzeko eta zertzeladak gehituzko orduan, eta ondorioz, ohiko jangaiekin bada ere, eguneroko bazkariak zapore desberdin eta usain berri bat izan dezan, betiere zoriona eta gozamenaren adierazgarri izango dena.

LIBURUAK GAINERA SUKALDEKO TRESNA TRADIZIONALEN ETA BESTELAKO IRUDIAK DAKARTZA; IZKIAK, BERDEAK eta GORRIAK... EZ OHIKOAK.

JESUS OBRERO
JON AIZPURU SARIAJESUS OBRERO.
JON AIZPURU SARIA.
II ESKOLA ARTEKO BERTSO
ETA KANTA TXAPELKETA

• JESUS OBRERO IKASTETXEAK geure hizkuntzari eta heziketako euskal abarrari indarra ematekoan, aurtten ESKOLA ARTEKO BIGARREN BERTSO ETA KANTU TXAPELKETA "JON AIZPURU SARIA" antolatu du.

• Otsailaren 5era arte jasotako lan guztiak epailegoak aztertu eta bertsolari finalistak eta saritutako kantak aukeratu ditu. Hauek hilaren 17an Vital Kutxaren "Aula Fundación" izeneko Dendarabako Kultur Aretoan arratsaldeko 7etan izango den ospakizunean beren lana kantatuko dute. Orduan lehiaketaren irabazleak nortzuk diren jakingo dugu.

• Arabako lurraldean LHko 3. zikloan eta DBHn aurtten matrikula egin duten ikasle guztiek parte hartu ahal izan dute. Bertso lanak originalak izatea derrigorrezkoa izan da, egokitutako lanak ontzat eman gabe. Bi bertso zortziko txikian nahikoa izan da parte hartzeko, bestelako neurriak eta bertso motak onartu direlarik. Kantak interpretazioak izan zitezkeen, baina orijinalak gehiago baloratu dira.

• Gaia honakoa izan da:

"GURE IRAKASLEA(K)"

• Sariak hauek izango dira

- L.H.3:

1. 15.000 + txapela

2. 10.000 / 3. 5.000

- D.B.H:

1. 15.000 + txapela

2. 10.000 / 3. 5.000

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: JESUS
OBRERO INSTITUTU
POLITEKNIKOA (EUSKARA MINTEGIA)
Francia 32. 01002 GASTEIZ

mundu bat euskarara bildu

Korrika Kulturala *abian.*

KORRIKA 12rako entrenamendua

Otsailaren 3tik aurrera eta
martxoa bitartean makina
bat kultur ekitaldik Euskal
Herri osoko eszenatokiak
beteko dituzte

korrika
badator



Korrika Kulturala Euskal Herriko herri eta auzoetan zehar antolatzen den kultur egitarau zabala da. Korrika egiten hasi baino lehen giroa berotzen joatea du asmoa eta, halaber, Euskal Herri osoan zehar euskaraz ekoiztutako kultura adierazpide guztien ispilua ere izan nahi du Korrika Kulturalak, kultur gile ororen lanaren erakusleihoa.

Mende berriak erronka berriak ekarri dizkio Korrika Kulturalari. Helburu nagusia Euskal Herriko eskualde guztietara iristea da eta, honekin batera, orain arte Korrika Kulturalak landu ez dituen guneta areto berrietara iristea. Ekitaldien kalitatea bermatzea eta kultur alor berriak jorratzea ere Korrika 12ren egitarau kulturalaren xede garrantzitsuak izango dira.

Horrela, bada, Korrika Kulturala Astigarragako hainbat sagardotegitan egingo den Korrika Txotx sagardo festarekin hasiko da otsailaren hiruan, eta bederatzi astez, KORRIKA

apirilaren 8an Baionan amaitu (hasiera: martxoaren 29an GASTEIZEN) bitartean, euskaraz eta euskarari loturiko makina bat ekitaldi izango da euskal lurraldeetan zehar.

Korrika 12ren mezua

"Mundu bat euskarara bildu" lelopean Korrika 12ren mezuak globalizazio hitza du giltzarri. Horrela, globalizazioaren kontzeptua aniztasunarekin lotu eta munduko kultura eta hizkuntza guztien iraupenaren aldeko aldarrikapena izan nahi du aurtengo Korrikak. Euskara eta beste hizkuntza eta kultura gutxitu asko munduaren herritar guztien ondarea dela zabaldu nahi du, alegia.

Eta honen harian, aurtengoan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak izango da Korrika Kulturalaren ekitaldi nagusiaren protagonista. Izan ere, bertsolaritza euskal kulturaren berez-

ko ondarea da, euskaraz baino ezin uler daitekeena eta aro modernoaren beharretara egokitzten jakin izan duena. Ezaugarri hauek Korrika 12ren izpirituarekin bat datozela eta, Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak, bertsoaren mundua eta bertsozaleasuna bultzatzen burutzen ari den lan bikainarengatik, omendua izango da.

Ekitaldia bertsolaritzaren ibilbideko garai esanguratsuen errepresentazioan oinarrituko da, pasarte ezagun eta adierazgarriak islatuz, eta Donostiako Kursaallean egingo da martxoaren 10ean.

Baina hau ez da bertsolaritza oinarri izango duen ekitaldi bakarra. Izan ere, Korrika Kulturalaren hasieran bertan "Korrika Trama" bertso ikuskizunari ekingo zaio, eszenatokiaren eszenatoki, Baionako helmugan bukatzeko asmoz. Araban Laudion izango da "bertso trama" honen gora-beheretza gozatzeko aukera.

Euskal Herriko mundura

Eta kulturen aniztasunaren aldeko apustu horrekin lotuta, Korrika Kulturalak Munduko Musikak Jaialdia izenburupean bilduko diren sei folk musika kontzertu eskainiko ditu. Munduko 10 talde eta bakarlarik parte hartuko dute: Euskal Herriko Txanbela, Numidia, Alboka eta Kepa Junkera; Galiziatik, Faltrikeira eta Berrogüeto izango dira; Hijas del Sol, Ginea Abissautik; Sudanetik, Rasha; Sierra Leonatik, Seydu; eta Terry O'Neil, irlandar lurretatik. Emanaldiak martxoaren hiru asteburutan izango dira Arrasate, Tuteran, Getxo, Tolosa, Durango eta Gasteizen; hilaren 24an azkenengo hau.

Antzerkiak ere kultur ekitaldi sorta anitz honetan tokirik izango du, martxoaren 17an Gasteizko Principal Antzokian estreinatuko den emanaldiaren bitartez. Tebistaz ezaguna egin den "Club de la Comedia" saioaren euskarazko bertsioa izango da "Komeriatan" antzezlan. Puntako euskal aktoreen partaidetzarekin eta musika talde batekin, publikoak ordu eta laurdeneko antzezkiak gozatu ahal izango da. Patxo Telleria eta Mikel Martinez arituko dira aurkezpen lanetan eta Mikel Garmendia, Jose Ramon Soroiz, Ane



1980

1982

1983

1985



Gabarain, Elena Irureta eta Aitor Mazo izango dira eszenatokian ikusi ahal izango ditugun protagonistak. Bestalde, Aitor Beltranen ardurapean, bost musikari arituko dira estilo desberdineko musikak landuz eta txalaparta oinarri izanik. Estreinaldiaz gainera, beste lau emanaldi egingo dira, hegoaldeko gainontzeko hiriburuetan eta Baionan. Korrika Kulturalak ez du ahaztu nahi izan euskal kirolak berezko izaera badaukala eta honi ere tarte berezia egingo zaio. ESAIT -Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea- taldearekin elkarlanean, hainbat diapositiba emanaldi egongo dira Euskal Herrian zehar; Arabakoa Laudion izango da martxoaren 22an. Halaber, erakustaldien ostean, kirolari ezagu-

nen partaidetza izango duten mahainguruak izango dira, Euskal Selekzioa mintzagai.

Araban, Geu ere Korrika

Aipatu bertsolaritza, folk musika, antzerki eta kirol emanaldiez gain, Gasteizen izango den Juan Carlos Perez eta Anariren kontzertua ere azpimarratu behar da. Martxoaren 31n, larunbata, Principal antzokian izango da eta Geu elkarte eta Geu aldizkariak (aldizkariaren 100. alea ospatzeko antolatu ekitaldietako bat) eta Korrikak bat egin dute berau antolatzeko. Hasiera batean Mikel Laboa etortzekoa zen bere ikustaldi berria aurkeztera, baina arrazoi pertsonalak direla medio bere kontzertua bertan behera geratu da. Beste batean izango da...

Eta Gasteizen beste hainbat ekitaldi berezi gehiago antolatu dira. Horien artean:

- Traspasos, Moare eta Ikuttu dantza garaikideko talde gasteiztarrek martxoaren 2an Hegoalde Gizarte Etxean eskainiko duten emanaldia.
- Otsailaren 22an Gasteizko Bertso Eskola eta zenbait antzerkigilerekin batera Beñat Etxepare Antzokian egingo den bertso-trama.
- Samboko Euskal Selekzioak erakustaldi bat egingo du Judimendi Gizarte Etxeko polikiroldegian.
- Gasteizko kanpuseko Euskara Taldearekin batera elkarlanean, eta literaturari ere bere tokia eman nahirik, hainbat ekitaldi berezi ere egingo dira martxoaren 13, 14 eta 15ean. Astearte- 13an, Bernardo Atxagaren irakurraldia izango da; astezkean, euskal literaturaren bilakaeraren inguruko mahaingurua; eta ostegunean, "Milurte berria, poesia berria" izenburupean poesia eta musika ekitaldi batean elkartuko dira.

Amurrio eta Agurain ere Korrika Kulturalak utziko dituenaren lekuko izango dira. Amurrian, batetik, musika eta poesia elkartuz, Ubeda anaiek (Bide Ertzean taldekoak), Karlos Arantzegi baterijolea eta Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarri idazleek elkarlanean prestatu duten "Oinek egiten dute sorterrria" izeneko ikuskizunaz gozatzeko parada izango da. Agurainen, bestalde, musika, testu labur eta zinemarekin uztartuko da.

... korrika 12: 2001

MARTXOAK 29. GASTEIZ

APIRILAK 8. BAIONA



1987



1989



1991



1993



1995



1997



1999



Lorea Katarain: PILOTAZALE ‘PILOTARI’. NAHI ETA EZIN

“Mutilekin joka nezakeen galdetu nuen, eta farre egin zuten...”

Idiazabalgo baserrian bizi diren sei neba-arreben artean Lorea Katarain dugu kirolzaleena, “etxekoei kirola gustatu bai, baina egitea beste gauza bat da”. Txikitatik esku-pilotan aritu eta oraindik bikoteka aritzeko neskari ez du gazteak aurkitu. Hala eta guztiz ere, denbora libre izan bezain laster Gamarra nahiz Seminarioko frontoietan aritzen da Lorea, egunen batean berarekin ariko dena agertuko den itxaropentsu.

✓ **-Izen-abizenak:**

Lorea Katarain Azaldegi

✓ **Jaioterria:**

Idiazabal

✓ **Jaioteguna:**

1982ko azaroak 25

✓ **Ikasketak:**

Goierri batxilergoa ikasi eta orain Gasteizen automozioko modulua ikasten ari da.

✓ **Zaletasunak:**

Pilotaz gain bizikletan ere “suabe-suabe” ibiltzea du gustuko Loreak, baita mendia egitea ere.

• **ZALETASUN GOGOKOENA ESKU-PILOTA DUZULA, NOIZ HASI ZINEN KIROL HONEKIN INTERESATZEN?**

Txikitatik hasi nintzen esku-pilota praktikatzen. Amarekin joaten nintzen paseatzera, asko gustatzen baitzaio. Olaberrira joan ohi ginen, Idiazabal ondoan; hango frontoian palarekin ibiltzen ginen hasieran, ama ere aritzen zela. Amaren esanetan txikiak zirenean jolasaldietan eskuz ibiltzen ziren. Frontoian aritu izan naiz amarekin nahiz eta beti bakarrik amaitu (barreak)... Horrela hasi nintzen.

• **DENBORA PASA AHALA ZALETASUN IZATETIK MAILA PROFESIONALEAN ARITZEKO NAHIA SORTU AL ZAIZU?**

Ez, ez. Ez dut modu profesionalean aritzea pentsatu ere egin, gustuko dudana zaletasuna besterik ez da. Denbora librea izatean praktikatzen dut

"Lau t'erdiko finala desproporzionatu xamarra iruditu zitzaidan"

eta eskolan aukera izan nuenez apuntatu nintzen; orduan bikotea nuen baina hortik aurrera bakarrik ibili naiz. Ez naiz ezta hortik ibili ere galde-tzen... Nire helburua ez zen federatzea, baina beti bakarrik ibiltzen nintzenez norbaitekin jokatzeko bilatzen nuen. Orduan kiroldegietan ikastaror-ak zeuden galdetzea bururatu zitzaidan eta Federazioaren telefonoa eman zidaten. Haiei hots egin eta federatuta zeuden taldeekin harremanetan jar-tzeko bidea eman zidaten. 16 urtetik gorako federatutako neska talderik ez dagoenez, mutilekin joka nezakeen galdetu nuen, eta farre egin zuten...

• ZEIN IZAN DA HONEN AURREAN ZURE ERANTZUNA?

Ikusten da nesken artean pilotan jokatzeko zaletasunik ez dagoela, nik jarraituko dut eta baten bat balego animatzeko esango nioke.

• ...XXI. MENDEA ETA EMAKUMEOK KIROLO MUNDUAN DUGUN AUKERA ETA EGO-ERA ESKASA DA ORAINDIK...

Gizonezkoen munduak dirua eta dena mugitzen du; emakumezkoen mun-duak, berriz, ez du inor erakartzen.

• ETXEKOEK, ADISKIDEEK, EZAGUNEK..., ZER DIOTE ZURE EGOERARI BURUZ, HOTS, JOKATU NAHI ETA EZIN?

Ez gara horri buruz eztabaidatzen aritu, baina etxean inoiz komentatu izan dugu eta, beno, egoera ez dela ona aipatu dugu.

• ALDATZEEKO MODURIK IKUSTEN AL DUZU, HAU DA, ZERBAIT EGITEKO ASMOA DAUKAZU?

Aldatzeko zaila da, bakoitzak bere aldetik egiten baitu...

• ZER IRUDITU ZITZAIZUN AZKENENGO LAU T'ERDIKO FINALA?

Telebistan ikusterakoan aspertu egiten naiz, nahiago dut jokatu. Hala eta guztiz ere, lau t'erdiko finala desproporzionatu xamarra iruditu zitzaidan; horrenbesteko aldea egotea ere...



Zirt edo Zart

- Pilotari gustukoena?

Ez daukat. Partiduak ikusten ditut, baina faboritorik ez daukat.

- Gorriak edo urdinak?

Gorriak, normala den bezala.

- Frontoi bat?

Ni jokatzen ohituta nagoena, Olaberrikoa.

- Amets bat?

Denbora libre izanez gero pilotan jokatzen ibiltzea, eta nekazaritza mundua gusta-tzen zaidanez hortik bizi ahal izatea.

- Txikitako oroitzapenik?

Txikia nintzenean bi aldiz apuntatu nintzen pilotan jokatzera beste batzuen aurka, hiru partidutara-edo zen txapelketa eta gogora-tzen dut behin egunez kon-funditu ginela oholetan gaiz-ki ipintzen zuelako; izuga-rrizko amorrua eman zidan. Gauzak horrela, gu egun bete atzeratuagoak gindoa-zen eta galdu egin genuen.

- Eskubia edo ezkerra?

Jokatzeko behintzat eskubia.





Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITTILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel:945 15 42 60


DONOSTIA
OIARTZUN

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

PPk Gasteizko udal ordenantza indargabetu nahi duela salatu dute euskaltzaleek

Gasteiz "EGUNKARIA" (01-1-27)

Gasteizko Euskararen Udal Ordenantza indargabe utzi nahi du PPk arautegiaren artikulua erabakigarria ezabatuz edo aldatuz, Euskaltzaleon Elkarguneko kideek eta EHren zinegotzi taldeak salatu dutenez. Hain zuzen, ordenantzaren hamargarren atala da, arautegia benetan garatuko lukeen lan taldearen jarduerari buruzkoa.

Euskaltzaleon Elkarguneak idatzia aurkeztu zuen atzo udal erroldan, eta aipatutako lan taldea "lehenbailehen lanean" jartzeko eskatu, PP alkatetzan dagoenetik behin ere bildu ez dela ikusirik. Euskaltzaleen irudiko, "garrantzi handiko eginbeharrak ditu".

PPk, ordea, beste ikuspegia du. Iragan ekainean, gobernu taldeari noiz abiarazi behar zuen galdetu ziotenean, popularren erantzuna izan zen ponentziaren lana bukatutzat har zitekeela kale izendegia amaitu ondoren. Oso litekeena da, hortaz, datorren astean arautegia edukiz husteko mugimenduei ekitea.

"PPk, nolabait, indargabetuta zuen lehendik Euskararen Ordenantza, baina arazoa da orain testuan bertan gauzatu nahi duela", nabarmendu du EHko zinegotzi Eba Gonzalez de Herediak.

PPk DIPUTAZIOAN ERE EGINDAKOA KRITIKATU DUTE

Era berean, PPk Arabako Diputazioan hizkuntza politikan izandako jarrerak ere kritika gogorrak jaso ditu. Izan ere, EHk mozioa defendituko du datorren asteleheneko Biltzar Nagusietako bilkuran, Aldundiko Euskararen Aholku Batzordeak aurrekontu gehiago nahizpartaidetza zabalagoa izateko.

"Batzordeak bistako mugak ditu, hala diruz nola osakeraz", salatu du EHk. Jokabide horrekin, Aholku Batzordea eratzearekin, alegia, PPk "itxura" baino ez zuela egin nahi erakutsi duela gaineratu du.

"Atzo arratsaldean "Zabaltzen"en polizia nazionala sartu zen Garzon epailearen aginduz dokumentazio eskaera egitera. Gertakizun honen aurrean Zabaltzen, Euskal Kulturgintza eta Elkarlaneaneko langileok gure elkartasuna adierazi nahi diogu enpresari.

Azken hilabeteotan euskalgintzan diharduten beste erakundeekin gertatu bezala, honako hau ere euskal kultura eta euskalgintza desprestigiatzeko kanpainaren harian dakusagu langileok".

ZABALTZEN, EUSKAL KULTURGINTZA ETA ELKARLANEANEKO LANGILEOK (01-1-24)

zeuk aukeratu

PARRAL TABERNA

OTSAILAK 6: **TEATRO K.O. "SALOME O ALGO PARECIDO"**. GASTEIZ

OTSAILAK 13: **ZEHAZTU GABE**

OTSAILAK 20: **KORRIKA KULTURALA. NESKEN ABESBATZA**. GASTEIZ

OTSAILAK 27, **"ASTEARTE-IHAUTERI"**. KULTUR ERROTA (GEU): "HARAGI GORDINA" ("MAL DE OJO" taldearen partaide batzuek osatua). Donostia.


*ADI **KULTUR KAMPUSEKO** OTSAILEKO EKITALDIEI: **IÑAKI ARAKISTAN QUINTET, ÑAQUE O**

DE PIOJOS Y ACTORES Teatre, **NEW ORLEANS BLUES STOMPERS, HABLEMOS DE...** ESO EMAKUME AUSARTAK TEATRO, ERAKUSKETAK, HITZALDIAK...

*ETA ADI **GEU** ALDIZKARIAREN **100. ALEKO** OSPAKIZUN EKITALDIEI!

ANTZERKIA EUSKARAZ: OTSAILAK 16. **PRINCIPAL ANTZOKIAN.**

ADI **KORRIKA KULTURALARI**



HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin itundutako ikastetxea
- Arabako Lanbide Heziketako Partzuegoko kidea
- Lanbide Heziketako ikastetxe integrala
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak babestutako ikastetxea
- Hobetuzek eta INEMek homologatutako ikastetxea
- Egailanen (Langai) ikastetxe laguntzailea
- HETEL eta UCARA elkartutako ikastetxea

Gasteizko Arriagako, Molinuevoko, Nieves Canoko eta Mendizorrotzako DIOCESANAS ikastetxeetan ikasketa hauek egin ditzakezu:

DBH	(A, B eta D ereduak)
BATXILERGOAK	(3 modalitate, A eta D eredueta).
LH-KO HEZIKETA ZIKLOAK	(batzuk D ereduan):
Erdiko maila (8 ziklo)	Goiko maila (20 ziklo).

**Kalitate
ezagutua**



Kalitateko lehen saria
M.E.C. (98/99)



Europar kalitatea
Q*For (1996-2000)



Euskadi
Zilarrezko "Q-a" 2000

Maila eta ikastetxe bakoitzeko eskaintza bereziari buruzko argibideak:

ARRIAGA: 945 010110
MOLINUEVO: 945 010120

NIEVES CANO: 945 010130
MENDIZORROTZA: 945 010140

E-mail: info@diocesanas.educanet.net • Web: www.educanet.net/diocesanas

Kalitatezko HEZKUNTZA EGITASMOA, gizartekoa, balioetan oinarritua. Ikasleengan pentsatuz egina, ikasketetan eta lanbidean trebatu eta gora egin dezaten. Enpresekin eta erakundeekin lankidetzan prestatutako egitasmoa, gure herriko gizartea eta ekonomia garatzeko helburuarekin.

Arloko erakundeek onartu eta egiaztatutako EFQM bikaintasun ereduan oinarritutako kalitate kudeaketako sistema dugu. Langileen protagonismoan, familiekiko eta inguruarekiko elkarbizketan eta etengabeko hobekuntzan oinarritua.



FUNDACION
Caja Vital Kutxa
FUNDAZIOA

**Elkar
ulertzeko**

**Otsaileko
matrikulazioa**

urtarrilaren 22tik
otsailaren 9ra

ika

ika

100. zk
2001eko apirila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

ALDIZKARIA 100. ALEA

ZORIONAK!!

Ospatu gurekin!!!



ARABAKO EUSKAL HOTSAK

ANTECEDENTES DEL EUSKERA
EN ALAVA **ERAKUSKETA-EXPOSICION**
Otsailak 16-Martxoak 25
MONTEHERMOSO KULTURUNEAN




MIKEL URDANGARIN

KONTZERTUA. PRINCIPAL ANTZOKIAN.
Otsailak 22, Osteguna, 20:30etan
(CD berriaren aurkezpena)



Sarrerak: Arriaga - Zuloa Irudia



J.C. PEREZ • ANARI

KONTZERTUA. PRINCIPAL ANTZOKIAN.
Martxoak 31, Larunbata, 21:00etan



Sarrerak: Arriaga
Zuloa Irudia



Ateraiozu
zukua
euskarari

Y saborea
su frescor

¡Sácale jugo
al euskera!

Eta bere
freskotasunetik
edan



• "ATERAIOZU ZUKUA, SÁCALE JUGO" EGUNA

Apirilak 7, larunbata, goizez eta gauez
Egunez (12:00etatik aurrera):

- **KULKI taldea** (jolasak Farolon-en)
- **ZIRKO KALEJIRA**
Sebastopoleko Titiriteroekin
(Erdialdean eta Alde Zaharrean)
- **Informazio gunea...**

Gauez. Gaztetxean:

- **ZUKU FESTA** 22:00etatik aurrera:
- **KESENGUE-KESENGUE** taldearen kontzertua
(Musika afro-karibetarra)
- **CUBO Dj-a** (Silum Soundz)

sartzeko zerbait laranja eraman-llevar algo naranja para entrar




eta... **SORPRESA**
ugari!!!



Antolatzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak:



F U N D A C I O N



Caja Vital Kutxa

F U N D A C I O N